



Datuak ala informazioa? Zertarako eta zeinentzat?

Gure egunerokoan gero eta ugariagoak dira datu pertsonalen iturriak. Etengabe erabiltzen ditugu eta geroz eta erabilera anitzagoak dituzte baina, pentsatzen al dugu inoiz informazio hori nork erabiltzen duen eta bere benetako helburua zein den?

Gailuak eta datuak

Hona hemen egunero erabiltzen ditugun hainbat tresna:

- Smartphone-a
- Ordenagailu portatila
- Smartwatch-a
- Nintendo eta antzeko gadgetak
- App-ak
- Sare Sozialeak
- Fidelizazio txartelak
- Wifi sareak
- Adimendun semaforoak
-



Pribatutasuna jomugan

Sarera bidaltzen ditugun datuak esponenzialki hazten ari diren honetan, badira norbanako gisa izan beharreko pribatutasuna aldarrikatzen duten kontsumitzaileak. Honetaz jabetuta, zenbait markak euren erabiltzaileen datuak babesteko ekimenak abian jarri eta jakitera ematen dituzte. Apple da adibideetako bat.

Baina, zertaraino da hau egia eta zanez ere, app bat deskargatzen dugun bakoitzean, edota interneteko orrialde bat irekitzen dugun bakoitzean, **pribatutasun politika dudagarrirei men egiten diegu**. Cookiak eta alerta ezberdinak horren erakusgarri dira.

2018an, minutu batean:

- 97.222 bideo ordu ikusi ziren Netflixen
- 4.333.560 YouTube bideo
- 473.400 txio bidali ziren
- 176.220 Skype dei egin ziren
- 49.380 argazki igo ziren Instagramera.
- 750.000 abesti entzun ziren Spotifyn

Big Data: geratzeko heldu da

Laugarren industria iraultza, iraultza digitala... babes neurri handiagoekin bada ere, badirudi datuak izango direla etorkizun hurbilean gure ekonomiaren lehengai nagusia. Ditugun interesak, nondik nora mugitzen garen, zer eta nola kontsumitzen dugun... informazio guzti hau ezinbestekoa izango da baita ere etorkizuneko smart city edo hiri inteligentzarako guzti honek, zein xede izango du azkenean? **Gure onurarako** izango da, ala markak soilik egingo die mesede? **Nola erabili**, hor dago gakoa, ziurrenik.



Zer dago horren atzean?

Egun, gure borondatez biluzten gara: milioika datu jartzen ditugu sarean edonoren eskura. Eta hona hemen gakoa: nor da edonore? Datu broker-ak. Datuen salmentarekin negozioia egiten dute, hau da, **gure datuak informazio bilakatzeko ondoan saltzeko**. Era honetara markak anuntzio pertsonalizatuak diseinatzeko erabiltzen dituzte, eta gure interesen arabera behar berriak sortu.